

## Mutrikun izango da *Spraikada* '09, Euskal Herriko Graffiti Lehiaketaren 6. edizioa

- Lehiaketaren buruz burukoa uztailaren 18an izango da
- Izena emateko epea ekainaren 30ean amaituko da
- Herriko hormak museo bihurtuko dira

**DONOSTIA, 2009/05/26.-** Duela sei urte hasitako bideari jarraituz, aurtengoan Mutrikun egingo den [Spraikada](#) aurkeztu du [Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak](#). Lehiaketa seigarren ediziora iritsi izana “*duen harrera eta indarraren seinale*” dela esan du Topagunearen Gazte Saileko arduradunak, Sonia Perez Anguerak. Era berean, bihotzez eskertu du **Mutrikuko Udalaren** partetik *Spraikada* aurrera eramateko jasotako **laguntza eta elkarlanerako gogoia**.

Antolatzaileek azaldu dutenez, *Spraikada* hitzordu klasiko bilakatu da dagoeneko euskal graffitigile eta zaletuen artean. Era berean, euskal graffitigintzaren harrobiaren erakusleihor paregabea ere bada *Spraikada*.

### Kaleko hormak, museo

Gaurko aurkezpenaren helburua lehiaketaren berri ematea zen: Mendaro, Getxo, [Tolosa Gernika-Lumo](#) eta [Erandio](#)tik pasatu ondoren, **Mutrikun** izango da aurten buruz burukoa, **uztailaren 18an**. Mutrikuko Udalak **800. urteurrena** ospatzen du aurten, Kutxaren laguntzaz, eta *Spraikadaren* buruz burukoa ospakizunen artean sartu nahi izan du. Era horretan, publiko gaztea ere urteurrenaren ospakizunetan inplikatzeara bilatzen du Udalak, eta Mutrikuko kaleetako hormak gaur egungo adierazpide artistiko honen museo bilakatzeara. Halaxe azaldu du Mutrikuko Udaleko Euskara eta Kultura zinegotziak, Iratze Garagarzak.

## Mutriku acogerá *Spraikada* '09, la sexta edición del Concurso de Graffiti de Euskal Herria

- La final del certamen se celebrará el 18 de julio
- El plazo de inscripción terminará el 30 de junio
- Las paredes de la localidad se convertirán en un museo

**DONOSTIA, 26/05/2009.-** Siguiendo el camino emprendido hace seis años, este año será Mutriku la localidad que acoge [Spraikada](#), cuya sexta edición acaba de presentar [Topagunea, la Federación de Asociaciones de Euskera](#). El hecho de que el certamen llegue a su sexta edición “*muestra claramente la acogida y la fuerza*” que ha cosechado la iniciativa, como ha explicado la responsable del Área de Juventud de Topagunea, Sonia Pérez Anguera. Asimismo, la portavoz de Topagunea ha agradecido la colaboración y buena disposición del Ayuntamiento de Mutriku para la organización de esta edición de *Spraikada*.

La organización de *Spraikada* ha subrayado que el certamen se ha convertido ya en un clásico para graffiteros y aficionados de Euskal Herria. Además, la cita resulta un escaparate inmejorable para la potente cantera graffitera euskaldun.

### Museo en la calle

El objetivo de la presentación de hoy era dar a conocer los detalles técnicos del concurso: tras visitar Mendaro, Getxo, [Tolosa](#), [Gernika-Lumo](#) y [Erandio](#), este año será **Mutriku** la localidad que acoge la final, el **18 de julio**. El Ayuntamiento de Mutriku está celebrando el **800 aniversario** de la localidad, con la ayuda de Kutxa, y ha decidido incluir *Spraikada* entre los actos conmemorativos. De esa manera, pretende implicar también al público joven en la celebración, y convertir de paso las paredes de Mutriku en un auténtico museo callejero dedicado a esta forma de expresión artística. Así lo ha explicado Iratze Garagarza, Concejal de Euskera y Cultura de la localidad.

Buruz burukoan, betiko moduan, hamar graffiti lehiatuko dira, horretarako espresuki gordetako 7 x 2 metroko beste horrenbeste hormatan, **1.500, 1.200 eta 900 euroko sariak** eskuratzeko. Aukera paregabea izango da Mutriku egun pasa egin, graffitiak egiteko prozesua zerotik jarraitu eta graffiteatzen ikasten hasteko ere, tailerrak eta bestelako jarduera osagarriak ere ez baitira faltako.

Lehiaketan parte hartzeko, egin nahi den graffitiaren zirriborroa bidali behar da lehenengo eta behin, eta hori egiteko epea ekainaren 30era arte dago zabalik. Jasotako lan guztien artean, hamar onenak aukeratuko dira, eta horietatik izango dira Mutrikuko hormetan islatuko direnak.

Izen emateko baldintzei dagokienez, gutxitxo dira, eta betetzen errazak: 16 urtetik gorako gaztea izatea, graffitiko testuak euskaraz egitea, zirriborroa epea amaitu aurretik bidaltzea eta, finalista suertatuz gero, aukeratutako zirriborroko graffitia antolakuntzak emandako sprayekin egitea. Hortik aurrera, estiloa, teknika eta gaiak libreak dira erabat.

Informazio gehiago nahi dutenek, dena den, euren herriko euskara elkartearen zein interneten aurki ditzakete lehiaketaren oinarriak. Horretarako helbidea ondoko hau da:  
[www.spraikada.com](http://www.spraikada.com)

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa 1997an sortu zen, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 93 Euskara Elkarteak osatzen dute. Elkarteon zein Federazioaren beraren helburua euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako, hainbat esparru lantzen dituzte, hala nola haur eta gazteen aisialdia, kulturgintza, tokiko hedabideak, mintzapraktika, entitateak euskalduntzea, sentiberatzea...

Como siempre, en la final competirán un total de diez murales, plasmados en sendas paredes de 7 x 2 metros, que se disputarán tres premios de **1.500, 1.200 y 900 euros**. Será una ocasión inmejorable para conocer Mutriku, ver en vivo cómo se realiza un graffiti, e incluso atreverse a *graffitear*, ya que no faltaran talleres y otras actividades complementarias relacionadas con el evento.

Para participar en el concurso, el primer paso consiste en enviar un borrador del graffiti a realizar. El plazo para hacerlo termina el 30 de junio. Entre todos los trabajos recibidos, se seleccionarán los diez mejores, que serán los que se plasmen en las paredes de Mutriku.

Por lo que respecta a las condiciones para participar, no son muchas: ser un/a joven mayor de 16 años, realizar los textos del graffiti en euskera, enviar el borrador dentro de plazo y, en caso de resultar finalista, realizar el mismo graffiti del borrador, usando para ello los sprays que facilitará la organización. El estilo, la técnica y el tema son totalmente libres.

Quienes tengan interés en concursar, pueden consultar las bases en la Asociación de Euskera de su localidad, o bien en Internet, en la siguiente dirección: [www.spraikada.com](http://www.spraikada.com)

La Federación de Asociaciones de Euskera Topagunea se creó en 1997, y reúne a 93 asociaciones de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa. El objetivo tanto de la Federación como de las asociaciones es promover el uso del euskera. Para ello, trabajan en varias áreas, tales como actividades de tiempo libre para jóvenes y niños/as, medios de comunicación locales, euskaldunización de entidades, sensibilización y mintzapraktika.